

Logistika eraginkorra

Gure logistika-sarea berezko 20 plataformaz osatuta dago. Edonola ere, Taldeko saltoki guztiak hornitze-ko, gure kamioiek beste 40 plataforma erabiltzen dituzte, tartean, kanpoko enpresa batzuenak ere. Guztira, biltegiak 360.000 m²-tik gorako azalera dute eta, haietatik, milioi bat kaxa inguru banatzen ditugu egunero. "Zurekin" ereduaren merkataritza-proposamenaren oinarritzko zati gisa, kalitatezko eta gertuko produktu freskoa eskaintzea da gakoa. Kontsumitzaileak erreferentziako elikadura-katef-zat har gaitzan nahi dugu produktu mota horren eskaintza. Horretarako, beharrezkoa da logistika-sareak eta hornikuntza-fluxuak lantzea, buruz buru tokiko ekoizleekin.

Plataforma-mapa berregituratzen jarraitu dugu 2019an eta instalazio moderno eta eraginkorrak sortu ditugu. Haiei esker, gure bezeroen etorkizuneko eskakizunei erantzun ahal izango diegu (irekierak, gama zabaltzea,

unitateko zerbitzuak, e-commerce, tokiko produktu gehiago, etab.). CAPRABOren sare logistikoa eraldatzeko oinarrietako bat izango da El Prat de Llobregaten (Bartzelona) produktu freskoak banatzeko plataforma berri bat eraikitzea. Plataforma berriak 24.000 m² inguruko azalera izango du eta, egindako balioespenen arabera, 20 milioi euroko inbertsioa egin beharko da hura eraikitzeko. Proiektua 2018an abiatu zen eta 2020rako funtzionamenduan egongo da. Gainera, Gasteizen freskoen plataforma bat eraikitzeko proiektu bat abiarazi da.

"Zurekin" eredu etengabe ezartzeko behar den berrikuntza logistikoaren parte, hornikuntza-katean eta kudeaketa logistikoan egiten dugu lan, eta haiek berritzen goaz. Esate baterako, gure plataforma aurreratuei esker, banaketaren zati handi bat automatizatu dugu.

EROSKI Taldeak erabiltzen dituen plataforma logistikoko nagusien zerrenda



Enpresa hornitzaileekin elkarlanean aritzeko proiektua

Enpresa hornitzaileekin elkarlanean aritzeko proiektuaren filosofia eta oinarria bere horretan utzi dira, uste osoa dugulako, 2014an abian jarri zenetik, haren indarguneak eta onurak frogatuta daudela. Hori dela eta, 2017-2020 Plan Estrategikoan zehar, proiektuak hiru eremu hauetan ari gara ardatzen: eraginkortasuna, elkarlan eskaera eta elkarlana. Jarraian agertzen dira 2019an lankidetzan planean egindako aurrerapausoetako batzuk:

- Linealean erabilgarritasuna egotearen neurketa, toki eta une zehatzean produktu egokia izateko. Ekimen honi esker, salmentak gehiago handi daitezke, eta marka lehiakideen aldean gailen daiteke.
- GS1 estandarren ezarpena; metodo horri esker, produktu, unitate logistiko, lokalizazio eta aktiboak identifikatzeko hizkuntza partekatatu bat ezartzen da hornikuntza-kate osoan, eraginkorragoak izateko.

Elkarlanaren ardatzeko beste palanka bat bailitzan, gure enpresa hornitzaileekiko foroei eutsi diegu; haietan, adierazle gako nagusien bilakaera, elkarrekin egindako proiektuen egoera eta proiektu berriak partekatzen ditugu. Hori dela eta, 2019an EROSKiko Hornitzaileen Saila eta Elikadura Prozesuen Taldea bildu ginen Valentziako GRE-FUSA enpresa bisitatzeko, fruitu lehorretan eta zerealetan aditua.

Bestalde, garraio-agentziekin bildu gara, eta, horri esker, merkantzia-kargak aldi berean ikusteko eta produktuak entregatzeko metodo berriak ezagutzeko aukera izan dugu. Haiei esker, eskaeren harrera eta prestakuntza prozesuetako produktibitatea nabarmen hobetzen da.

2019an, logistika eraginkorragoa lortzeko ekimenaren parte:

- Lean metodologia garatzen jarraitu dugu; hornikuntza-katea nabarmen hobetzen du, eta, horrenbestez, lehiakortasuna hobetzen da. EROSKIn bada denbora metodologia hau ezartzen hasi ginenetik, industria-prozesu eta Elorrioko plataforma automatikotik hasita, kudeaketa arlo eta antolakuntza prozesuetaraino.
- Sistema bat ezarri dugu fokalizatu gabeko izakinak dituen fluxua eraginkorra egiteko, erreferentzia ehuneko jakin batean.
- Ekintza-planak zehaztu dira AECOC 2018-k 2019an argitaratutako Benchmarking Retailers dokumentuan puntuazio baxuena jaso duten alorrak hobetzeko. Dokumentu horren arabera, EROSKik bere hornikuntza-katea sendotu du, eta 2017an lortutako emaitzak hobetu ditu, hirugarren postura igota.

